

EUSKAL GIZARTEA IMMIGRAZIOAREN AURREAN: TOLERANTZIA INDIZEA

Begirada honen bidez, atzerriko immigrazioaren aurreko Tolerantzia Indizea aurkezten dugu, eta atzerriko immigrazioaren aurrean Euskal Herriko bertako biztanleek zer-nolako jarrera eta prestasuna duen neurtzen du indize horrek. Indize horretan, immigrazioaren aurrean euskal biztanleek dituzten iritziak, jarrerak, balioak, sinesmenak, estereotipoak eta abar, "ikasketetako nota" bat balitz bezala, zifra bakar baten bidez laburtzen ahalegindu gara, 0tik 100era doan zifra bakar baten bidez, tarte horretan kokatzeko, gertakari horren aurrean nola "hartzten dugun arnasa" ikusteko eta, hurrengo urteei begira, gure bilakaeraren jarraipena egiteko.

1. Atzerriko biztanleen aurrean ditugun jarrerak

2004ko eta 2007ko Barometroekin lortutako informazioaren azterketatik zenbait ondorio atera genituen immigrazioaren aurrean euskal biztanleriak zituen jarreraren, balioen edota sinesmenen aurrean. Horien artean, hauxe azpimarra dezakegu bereziki: biztanleen artean, jarrera anibalenteak ikusten dira oso maiz immigrazioaren aurrean. Hau da, euskal biztanleek immigrazioaren aurrean dituzten erreakzioei dagokienez, argi-ilunak edo askotariko jarrerak dituztela iradokitzen digute iteми emandako erantzunek.

2007 eta 2008ko Barometroetan oinarrituta, Ikuspegik euskal gizartearen tolerantzia indizea modu dinamiko batean neurtzeko tresna berri bat asmatu du

Zalantzarik gabe, guztioi gustatuko litzaiguke immigrazioaren aurrean jarrera irekiak eta tolerantzeak, ulerkorrak eta integratzaileak erakustea, baina ez gara gai beti geure burua horren eskuzabal, fidakor eta seguru erakusteko. Jarrera ireki eta bateratzaileekin batera, alderdi murriztaileagoak ere erakutsi ohi ditugu, eta segurtasunik eza sentitzen dugu, mehatxu eta ahuleziak sumatzen ditugu.

Alde batetik, euskal biztanleek haien artean *etorkinak ez direla inolaz ere arazo* esango digute (2004ko, 2007ko eta 2008ko barometro guztietan), ez dutela immigrazioa arazotzat hartzen, badituztela erreparatzeko moduko beste arazo batzuk, kezkarriagoak (langabezia, terrorismoa, etxebizitza, ordena desberdinean egoeraren arabera).

Euskal biztanleek hau ere esango digute: *migrazio-prozesuak aberasgarriak dira etorkinak hartzten dituen gizartearentzat, eta datozen pertsonen esker eutsi diezaikegu gure hazkunde ekonomikoari*. Jarrera horien arabera, pentsa dezakegu euskal gizartea oso irekia, plurala eta tolerantzia dela migrazio-prozesuen aurrean.

Dena den, argi horien ondoan hainbat alderdi ilun ikusten dira, izan ere, euskal gizarteari integrazio-prozesuaz galde-tuz gero, hauxe ikusiko dugu: *integratzeko ahaleginak etor-*

kinengan oinarritu behar duela uste du, etorkinek egin behar dute integratzeko ahalegina, eta ez dago prest zenbait ohitura eta tradizioari uko egiteko, bien arteko integrazioaren alde egitearen izenean. Funtsean, euskal biztanleriak planteatzen duen bizikidetasun-eredua tankera asimilazionista duen eredua da, agian ez dituelako bere esku beste eredu eragile batzuk (kulturartekotasuna eta kulturantzatasuna galdu egiten dira eremu abstraktuan, herritar xumeak behar duen eraginkortasunik gabeko eztabaiden eta planteamenduen mailan).

Euskal herritarrek ez dute mugarik jarriko *etorkinek, administrazioarekin duten egoera dena delakoa izanik ere, eskubide unibertsal deritzenetan sarbidea izan dezaten, hau da, seme-alabentzako hezkuntzan eta osasun-laguntzan*; baina askoz ere jarrera murriztaileagoa erakutsiko dute oinarritzko errentez, etxebizitzaz edo botoaz hitz egiten hasten garen.

Eta *kontraesana dakarten datuen* adibideak emanez jarrai genezake, errealitatean kontraesanik ez dakarten baina, argi eta garbi, immigrazioaren aurrean euskal biztanleek dituzten jarreraren, balioen eta sinesmenen anibalentzia erakutsiz.

Egoera hori hobeto definitzeko eta barometroetan biltzen diren galderen bidez lortutako informazioa laburtzeko asmoz, indize bat lantzea egoki zela pentsatu genuen, helburu bikoitza hartuta, bata zeharkakoa eta bestea luzetarakoa. Zeharkakoa, une zehatz batean euskal biztanleriaren egoera zer-nolakoa den jakiteko aukera ematen digulako (adibidez, 2007. urtean, 2008. urtean edota 2009.ean). Luzetarakoa, urteroko kalkuluak aukera emango digulako jakiteko indize hori nola bilakatzen den eta, ondorioz, urteen joanean euskal biztanleriaren jarreretan, sinesmenetan eta balioetan zer joera orokor nabaritzen diren.

Indize honetan 2007ko Barometroko 40 galdera laburtzen dira eta 2008koan 62. Indize hau hobetua izateko sortu da

2007ko fitxa teknikoa

- Egindako inkestak: 1200 (FM = % 95, sigma = 1,96) Errorea = +/- % 2,83
- 400 inkesta lurralde historiko bakoitzeko (+/- % 4,9)
- Laginetako 60 puntu / 60 sekzio mailakatu Etxebizitza Direktorioko aukeratutako sekzioen tipologiaren arabera, 2005

2007ko Barometroaren datuekin egin genuen lehen indizea, azterketa horretako 40 galderei emandako erantzunetan oinarrituta. 2008ko Barometroaren datuekin indize hori zuzendu dugu, aipatu ditugun 40 galdera horiei beste 22 aldagai erantsiz. Aurten, 2009ko Barometroarekin –beroni dagokion landa-lana apirilean eta maiatzean garatuko da–, berriro ere indizea kalkulatu dugu, galdera horiei euskal herritarrek emango dizkieten 62 erantzunetan oinarrituta.

Immigrazioaren aurreko Tolerantzia Indizearen azterketatik, hiru alderdi osagarri nabarmendu nahi ditugu, atera ditugun ondorio garrantzitsuen artean. Lehenengoa: atzerriko immigrazioaren aurrean, euskal biztanleriak jarrera, balio eta sinesmen anibalenteak erakusten ditu, eta indizean lortutako batez besteko puntuazioak horixe adierazten du. Bigarrena: tolerantzia-mailarekin lotutako aldagai soziodemografikoak aurkitu ditugu, eta horien arabera, tolerantzia-maila desberdinak eta ezaugarri soziodemografiko propioak dituzten tipologiak edo segmentuak ezar ditzakegu euskal biztanleen artean. Hirugarrena: desberdintasun horiek izanik ere, gehiago dira ezaugarri komunak desberdintasunak baino eta, sumatu diren desberdintasunak ez dute adierazten aurkako jarrerak dituzten segmentuak daudenik; ñabarduretan edo intentsitatean daude desberdintasunak batik bat.

2. Immigrazioaren aurreko tolerantzia-indizea

2007ko Barometroaren datuekin egin genuen bezala, 2008ko datuekin immigrazioaren aurreko Tolerantzia Indizea egin dugu, eta gertakari horren aurrean euskal gizarteak duen jokabideari buruzko informazioa ematen digu indize horrek.

2008ko Barometroaren datuetan oinarrituta indizea egin ahal izateko, iazko urtean hartu genituen aldagai berak hartu ditugu kontuan, eta indize hori ateratzeko bidea ematen duten beste batzuk erantsi dizkiogu. Eranskinean zehaztu dugu zehazki zein item dagozkien Tolerantzia Indizea kalkulatu ahal izateko ezarritako arloei.

Iaz, euskal biztanleriak 51,78 puntu lortu zituen Tolerantzia Indizean, eta, beraz, 0tik 100era bitarteko eskalan erdialdeko puntuak kokatu zen; atzerriko immigrazioaren aurreko anibalentziatzko jarrera erakutsi zuen argi eta garbi.

2008ko Barometroari dagozkien datuak ez dira 2007ko Barometroaren inkestan lortu genituen oso desberdinak eta, beraz, lortuko zen indizea ere antzekoa izatea espero zen. Aurten Tolerantzia Indizearen kalkuluan beste 22 aldagai sartu ditugunez, bi zifra atera ditugu 2008ko Barometroarekin, 2007an eta 2008an lortutako zifrekin alderatzeko: lehenengo-

2008ko fitxa teknikoa

- Egindako inkestak: 2.412 (FM = % 95, sigma = 1,96, eta errorea = +/- % 1,99)
- Inkestak lurraldeka: Araban 484 (+/-% 4,45), Gipuzkoan 868 (+/-% 3,32) eta Bizkaian 1.060 (+/-% 3,01)
- Laginetako 135 puntu 83 udalerritan banatuta (15 Araban, 28 Gipuzkoan eta 40 Bizkaian)

2009ko fitxa teknikoa


- Egindako inkestak: 1.200 (FM = % 95, sigma = 1,96, eta errorea = +/- % 2,8)
- Inkestak lurraldeka: Araban 400 (+/-% 4,9), Gipuzkoan 400 (+/-% 4,9) eta Bizkaian 400 (+/-% 4,9)
- Laginetako 87 puntu 29 udalerritan banatuta (6 Araban, 11 Gipuzkoan eta 12 Bizkaian)

Oro har, euskal biztanle gehienak anibalenteak direla berrets dezakegu (kontraesana dakarten arrazoibideak ditugu); eta segmentuen artean bereizten diren desberdintasunak ez dituzte muturreko jokabideak, elkarri kontrajarritakoak edo polarizatuak islatzen, desberdintasunak gehiago baitagozkie ñabardurei edo intentsitateari. Bereizi diren segmentu gehienak anibalentziaren eremuan mugitzen dira, tolerantziaren eta xenofobiaren artean, muturretatik aldentuz. Horixe ondoriozta daiteke 2007an landutako eta berriro 2008ko Barometroan aplikatutako immigrazioaren aurreko Tolerantzia Indizearen azterketatik.

ak 2007an kontuan hartutako 40 itemak biltzen ditu, eta bigarrenak guztira 62 item hartzen ditu aintzat.


1. grafikoa

Immigrazioaren aurreko 2007ko Tolerantzia Indizea



Iturria: geuk egina

2. grafikoa. Immigrazioaren aurreko 2008ko Tolerantzia Indizea, 2007ko aldagaiekin



Iturria: geuk egina

lazko urteko sistemari jarraituz, euskal biztanleriak indize horretan lortu duen puntuazioa 53,82 puntukoa izan da. 2007an lortutako indizea baino apur bat gorago dago, baina ez alde esanguratsuz hitz egiteko adina.

Tolerantzia Indizearen kalkulu berria, galdera berriak dituen, aplikatuz gero, 53,82ko puntuazio hori euskal biztanleriak lortutako 58,74ko puntuazioa da (baliokidea da).

Beraz, 2007aren eta 2008aren artean, ez da ia aldaketarik nabari atzerriko immigrazioaren aurreko jarreretan, balioetan eta sinesmenetan, eta sistema berriarekin 2008ko Barometroan lortutako puntuazioak (58,74 puntu) euskal biztanleria Tolerantzia Indizearen erdialdean kokatzen du; hortaz, anibalentzia erakusten du aurrez aurre dituen immigrazio- eta integrazio-prozesuei begira.

2009ko Barometrorako, indizea kalkulatzeko 2008an erabilitako aldagai berak erabiltzea da gure asmoa; horrela, lortzen den puntuazioan izan daitezkeen aldaketek euskal biztanleriaren jarreretan, sinesmenetan eta balioetan izandako aldaketak adieraziko dituzte soilik, eta ez Tolerantzia Indizearen kalkuluan egin diren doitzak.


Dena den, gure indizeak jada aurrez ere adierazi izan dugun zerbait azpimarratzen du: euskal biztanleriak atzerriko immigrazioaren aurrean zer jokabide duen aztertzen dugunean, jarrera, sinesmen edota balio anibalenteak erakusten ditu. Zenbait gaitan ezaugarri ireki eta toleranteak ditu, argi eta garbi, baina, beste gai batzuetan defentsa-jarrerak, mesfidatigoak, itxiagoak edo intoleranteagoak hartzen ditu.

2008ko Barometroan jasotzen diren itemen azterketa zehatz eta zorrotzean, aukera izan dugu ideia hori egiaztatzeko (22. eta 24. panoramikak).

Azterketa honetan landu ditugun arloen analisiak aukera eman digu, halaber, euskal gizarteko taldeen artean nabarmenki desberdinak diren jokabideez jabetzeko (estatistikoki desberdinak), nahiz eta desberdintasun horiek gehiago dagozkien ñabardurei eta ez dituzten erabat desberdinak diren jokabideak adierazten; hau da, ez dira aurkako jarrerak edo elkarri kontrajarritakoak dituzten taldeak.

3. grafikoa

Immigrazioaren aurreko 2008ko Tolerantzia Indizea



Iturria: geuk egina

Desberdintasunek *kualitatiboki* desberdinak diren taldeak sorrarazten ez badituzte ere (aurkako jokabideak, jarrerak, balioak, sinesmenak, portaerak), euskal biztanleria bereizteko aukera ematen duten zenbait aldagai aurkitu ditugu. Aldagai horiek garrantzi handikoak dira immigrazioaren aurreko Tolerantzia Indizearekin ari garenean ere eta, beraz, euskal biztanleriaren barnean indize horrekin lanean ari garenean, aurkituko ditugu nabarmen puntuazio handiagoa lortuko duten taldeak (ireki eta toleranteagoak diren euskal herritarren taldeak) eta nabarmen puntuazio txikiagoa lortuko dutenak (atzerriko immigrazioaren aurrean horren tolerantzeak ez diren eta uzkurragoak diren euskal herritarren taldeak).

Aldagai biko analisia da, beraz. Hau da, mendeko aldagai batekin eta aldagai aske batekin lan egitea eskatzen du (faktore baten ANOVA) eta, mugatua bada ere, ezinbesteko analisia da, aldagai anitzeko beste edozein analisisiri ekin aurretik egin beharrekoa. Mugatua, izaera soziodemografikoa duen aldagai aske batek elkarri eragiten dioten beste aldagai batzuen eragina edo ondorioa ezkuta dezakeelako. Esate baterako, elkarrekin oso lotuta dauden aldagaiak izan ohi dira batzuetan, eta oso zaila da aldagai biko analisi batean horietako bakoitzak betetzen duen lekua bereiztea; aldiz, aldagai anitzeko analisiak bakoitza bere tokian jartzen du. Immigrazioaren aurreko jarrerekin lotutako gaiak aztertzen ditugunean, nahiko ohikoa izan ohi da *adina* eta *hezkuntza-maila* aldagaiak nahastea, eta bi aldagai horiek bereizita aztertzen baditugu, baliagarri gertatu ohi dira taldeak bereizteko (adibidez, pertsona gazteenak jarrera irekiagoekin eta adintsuenak jarrera uzkurrenekin lotu ohi dira, eta prestakuntza-maila txikiagoa duten pertsonak prestakuntza handiagoko pertsonak baino tolerantzia txikiagoa erakutsi ohi dute); baina analisi bateratua egiten dugunean, gerta daiteke *hezkuntza-maila* aldagaia izatea fidagarriena, eta *adinaren* eragina barreiatuta gelditzea, eta gure biztanleriarengan biak oso lotuta daudelako gertatzen da hori: biztanleria-talde gazteenen prestakuntza-maila, oro har, askoz handiagoa da adinekoen taldeena baino.

Beste horrenbeste gertatzen da beste hainbat aldagaiekin ari garenean: *lanbidearekin*, *sexuarekin*, *estatusarekin*, *hezkuntza-mailarekin*, *adinarekin...* aldagai horiek elkarrekin oso

lotuta baitaude hainbat mailatan. Eta baita beste aldagai-multzo batzuekin ari garenean ere: *ideologia politikoarekin, euskal identitatearen edota espainiar identitatearen sentimendu subjektiboarekin, euskal edo espainiar nazionalismo-mailarekin, etab.*

Kasu horietan guztietan, garrantzitsua da soilik aldagai biko analisiak ez egitea, aldagai anitzeko analisiekin osatzea, horrela, aldagai desberdinen arteko eragin gurutzatuak neutralizatzeko eta bizi garen errealitatea hobeto ezagutzeko.

Has gaitzen analisi xumeenetatik (aldagai bikoak), euskal biztanleen artean aurki ditzakegun jarrera eta jokabideei buruz argibide pixka bat emango baitigute. 2008ko Barometroan landutako hainbat aldagai soziodemografikoren analisiak 2007ko Barometroan atera genituen ondorioak azpimarratuko ditu berriro ere: atzerriko immigrazioaren aurrean, tolerantzia handiagoa eta tolerantzia txikiagoa erakusten duten taldeak daude euskal biztanleen artean:

1. Immigrazioarekin tolerantzia handiagoa erakusten dute nabarmen 16 urtetik 44ra bitarteko pertsonak (60 puntu) 65 urtekoek eta hortik gorakoek baino (56,78 puntu).
2. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira euskaraz hitz egiten dutela dioten pertsonak (60,83 puntu) euskaraz hitz egiten ez dutela diotenak baino (57,15 puntu).
3. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (64,66 puntu) eta erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak (62,01 puntu) lehen mailako ikasketak dituztenak (56,31 puntu) edo maila horretara iristen ez direnak baino (55,19 puntu).
4. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira pertsona agnostikoak, ateoak edo erlijioaren aurrean axolagabetasunez jokatzeko dutenak (62,92 puntu) katolikoak baino, hauek praktikatzailerak izan (55,86 puntu) edo ez (58,00 puntu).
5. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira hileroko etxean 3.000 €-tik gorako diru-sarrera garbiak dituztenak (64,02 puntu) eta 1.800 €-tik 3.000 €-ra bitarteko diru-sarrerak dituztenak (60,95 puntu) 600 €-ra arteko diru-sarrerak dituztenak baino (54,79 puntu).
6. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira beren egungo egoera ekonomikoarekin gustura dauden pertsonak (60,26 puntu) eta bitarteko jarrera dutenak (59,05 puntu), gustura ez daudenak baino (55,90 puntu).
7. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ikasten ari diren pertsonak (63,71 puntu) lanean ari direnak (59,69 puntu), langabezian daudenak (57,58 puntu), erretiratuak, pentsiodunak edo errentadunak (57,51 puntu) eta etxean lan egiten dutenak baino (56,81 puntu).
8. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira ezkerreko ideologia duten pertsonak, (eskuinekoak baino (51,72 puntu).
9. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira beren burua muturreko euskal nazionalistatzat (59,63 puntu) eta erdi-mailako euskal nazionalistatzat definitzen dutenak (59,41 puntu) eta beren burua ez euskal nazionalistatzat eta ez espainiar nazionalistatzat ikusten ez dutenak (58,85 puntu), beren burua espainiar nazionalistatzat definitzen dutenak baino (55,05 puntu).
10. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira soilik euskaldun sentitzen direnak edota espainiar baino euskaldunago sentitzen direnak (59,62 puntu) eta beren burua espainiar bezain euskaldun ikusten dutenak (57,89 puntu) soilik espainiar direla edo euskaldun baino gehiago espainiar direla sentitzen dutenak baino (54,89 puntu).
11. Immigrazioarekin nabarmen toleranteagoak dira goi-mailako estatusa duten pertsonak (66,76 puntu) eta erdi-maila altukoak (63,96 puntu), erdi-maila baxuko estatusa dutenak (57,42 puntu) edo estatus baxua dutenak baino (53,20 puntu).

Datu hauek 2007ko Barometroak emandako datuekin erkatzen baditugu, ez dugu aipatzeko moduko desberdintasunik aurkituko (orduko hartan, *euskaraz hitz egitea* ez zen bereizgarri izan, baina bai sexua); txosten hartako ondorio nagusiak berresten dira.

1. taula. Immigrazioaren aurreko Tolerantzia Indizearekin lotutako aldagaiak

Tolerantzia-atalase txikiena duten pertsonen profila	Aldagaia	Sig.	Tolerantzia-atalase handiena duten pertsonen profila
65 urte edo gehiago	Adina	0,000	16 urtetik 44ra
Ez du euskaraz hitz egiten	Euskara	0,000	Euskaraz hitz egiten du
Lehen mailako ikasketetara arte	Ikasketak	0,000	Goi- edo erdi-mailako unibertsitate-ikasketak
Katolikoak, praktikatzailerak edo ez	Erljioa	0,000	Agnostikoak, ateoak edo axolagabe ageri direnak
Hileko 600 €-ra arte	Diru-sarrerak	0,000	Hileko 1.800 €-tik gora
Egungo egoera ekonomikoarekin ez daude gustura	Egoera ekonomikoa	0,000	Egungo egoera ekonomikoarekin gustura edo tartean daudenak
Lanean	Lana	0,000	Ikasleak
Eskuina	Ideologia	0,000	Ezkerra, zentro ezker eta zentroa
Nazionalista espainiarrak	Nazionalismoa	0,000	Muturreko eta erdi mailako euskal nazionalistak eta axola ez dienak
Soilik espainiar sentimendua, eta euskaldunak baino espainiarrak gehiago	Identitate-sentimendua	0,000	Euskalduna eta espainiarra aldi berean, euskalduna soilik edota euskalduna gehiago espainiarra baino
Estatus baxua edo erdi-maila baxukoa	Estatusa	0,000	Goi-mailako edo erdi-maila altuko estatusa

lazko urtean egin genuen bezala, AID erako aldagai anitzeko analisi bat aplikatu dugu, euskal herritarren artean zenbait tipologia egiteko aukera emango digun segmentazio-zuhaitz bat egiteko eta, atzerriko immigrazioaren aurrean talde edo tipo ireki eta toleranteagoak eta itxi eta uzkurragoak barnean hartu eta bereizteko.

Analisi hori egiteko, aldagai berak erabili ditugu, bai mendeko aldagaia eta bai aldagai askeak. Mendeko aldagaia da Tolerantzia Indizean lortutako puntuazioa, eta aldagai askeak dira sexua, adina, ikasketa-maila, euskaraz hitz egitea, erlijiozkotasuna, hilean familian sartzen diren diru-sarrera garbiak, norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasun-maila, jarduera ekonomikoa, ideologia, nazionalismo-maila, identitate-sentimendua eta estatus soziala.

Aldagai anitzeko metodologia honen aplikazioaren helburua ez da zehatz, zorrotz eta eztabaidea izatea, hau da: asmoa ez da tolerantzia handiagoa edo txikiagoa erakusten duten jarrerekin lotutako aldagaiei buruzko debatea ixtea. Aitzitik, errealtatea ikusteko eta ulertzeko modu xume bat baino ez dugu eskaini nahi. Badakigu proposatzen dugun tipologia horixe besterik ez dela: tipologia bat, aldagaiek, bildu ditugun bezala bilduta, eman diguten emaitza. Zalantzarik gabe, analisi hauek egin aurretik beste planteamendu metodologiko bat egin izan bagenu (adibidez, Tolerantzia Indizearen lanketa desberdina eginez, guk jaso ez ditugun aldagai askeak txertatuz, analisisan erabili ditugun beste zenbait kanpoan utziz, edota analisirako parametroen

beste aukeraketa bat eginez...), beste tipo edo segmentu batzuk aterako genituen, desberdinak bai kopuruari dagokionez eta bai deskribatzen dituzten ezaugarri dagokienez.

Baina, bai gure azterketetan eta bai aldagai anitzeko metodologia kuantitatiboak erabiltzen dituzten beste batzuetan, badirudi badela izaera konstantea hartzen ari den beste alderdi bat: atzerriko immigrazioarekin tolerantzia handiagoa edo txikiagoa erakusten duten jarrerak, balioak eta sinesmenak itxuraz ondoen aurratsen dituzten aldagaiak dira.


Gure 2008ko Barometroan, hauek dira jokabideak aurratsateko onenentzat agertzen diren aldagaiak, gure segmentazio-zuhaitzaren iragarleak eta zuhaitz hori bere maila guztiekin osatzeko aukera eman dutenak, garrantziaren arabera sailkatuta:

- **Lehen mailan**, *ikasketa-maila* (sig. 0,000).
- **Bigarren mailan**, *norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna* (sig. 0,000), *erlijioa*, bi aldeetatik (sig. 0,000 bi kasuetan), eta *lanbidea* (sig. 0,000).
- **Hirugarren mailan**, *familiako diru-sarrerak* (sig. 0,000), *ideologia* bi okasiotan (sig. 0,024 eta 0,033), eta *erlijioa* (sig. 0,025).
- **Laugarren mailan**, *euskaraz hitz egitea* (sig. 0,025) eta *norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasuna* (sig. 0,015).

Aldagai horiekin, 14 tipo edo segmentu atera ditugu. Hauek dira, tolerantzia handiena erakusten dutenetik tolerantzia txikiena erakusten dutenera ordenatuta:

1. Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak eta agnostikoak edo ateoak edo beste erlijio batekoak direnak (ez katolikoak): 68,50 puntuko puntuazioa, biztanleriaren % 2,3 adierazten dute.
2. Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak, agnostikoak, ateoak edo beste erlijio batekoak (ez katolikoak): 68,08 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 5 adierazten dute.
3. Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak, katolikoak (praktikatzaileak edo ez) eta zentro ezkerreko ideologia dutenak: 64,72 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 4,4 adierazten dute.
4. Bigarren mailako ikasketak dituztenak (UBI, batxilergoak, II. LH) eta, lanbideari dagokionez, ikasleak, erretiroa hartutakoak edo langabezian daudenak: 62,01 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 7,4 adierazten dute.
5. Bigarren mailako ikasketak dituztenak (UBI, batxilergoak, II. LH), lanbideari dagokionez, lanean ari direnak eta etxeko lanez arduratzen direnak, eta agnostikoak, ateoak edo beste erlijio batzuetakoak (ez katolikoak): 60,59 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 6,8 adierazten dute.
6. Goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonak, katolikoak (praktikatzaileak edo ez) eta ezkerrekoak, zentrotakoak edo eskuinekoak: 60,25 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 3,6 adierazten dute.
7. Ikasketarik gabeko pertsonak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, norberaren egoera ekonomikoarekin pozik daudenak edo axolagabe ageri direnak, familian hilean 1.800 € arteko diru-sarrera garbiak dituztenak eta euskaraz hitz egiten dutenak: 60,24 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 10,7 adierazten dute.
8. Erdi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenak, katolikoak (praktikatzaileak edo ez): 59,93 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 5,6 adierazten dute.
9. Ikasketarik gabeko pertsonak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, norberaren egoera ekonomikoarekin pozik daudenak edo axolagabe ageri direnak, familian hilean 1.800 € arteko diru-sarrera garbiak dituztenak eta euskaraz hitz egiten ez dutenak: 57,89 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 17,9 adierazten dute.
10. Bigarren mailako ikasketak dituztenak (UBI, batxilergoak, II. LH), lanbideari dagokionez, lanean ari direnak eta etxeko lanez arduratzen direnak, eta katolikoak (praktikatzaileak edo ez): 57,18 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 17,1 adierazten dute.
11. Ikasketarik gabeko pertsonak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, norberaren egoera ekonomikoarekin pozik daudenak eta familian hilean 1.800 €-tik gorako diru-sarrera garbiak dituztenak: 56,48 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 3,2 adierazten dute.

EAEko populazioaren segmentazio-zuhaitza eta tipologiak
Tolerantzia Indizean duten kokapenaren arabera



12. Ikasketarik gabeko pertsonak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, norberaren egoera ekonomikoarekin pozik ez daudenak eta ezkerrekoak edo zentro ezkerrekoak: 54,39 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 7,1 adierazten dute.
13. Ikasketarik gabeko pertsonak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, norberaren egoera ekonomikoaren aurrean axolagabe agertzen direnak, eta familian hilean 1.800 €-tik gorako diru-sarrera garbiak dituztenak: 51,01 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 4,5 adierazten dute.
14. Ikasketarik gabeko pertsonak edo lehen mailako ikasketak dituztenak, norberaren egoera ekonomikoarekin pozik ez daudenak eta eskuinekoak edo zentrokoak: 48,88 puntuko puntuazioa, euskal biztanleriaren % 4,4 adierazten dute.

Euskal biztanleria 14 tipo edo multzotan zatitzea edo 18tan edo 10etan zatitzea baino haratago goaz, nabarmendu beha-

rreko alderdia ez baita hori, beste hau baizik: badira garrantzi handia duten zenbait aldagai, atzerriko immigrazioarekiko tolerantzia handiagoko edo txikiagoko jokoerak, jarrerak, sinesmenak eta balioak auresaterakoan. Eta ildo horretatik, berebiziko garrantzia hartzen dute aldagai soziodemografikoek, bai gure analisian eta bai antzeko gertakariak aztertzen dituzten beste batzuetan ere (ikus *M^a Cea D'Ancona*, *Narvaiza* eta beste zenbaiten azterketak), etengabe bereizketak egiteko aukera ematen baitute.

Honako hauek dira aldagai horiek: *biztanleriaren hezkuntza-maila* (eta ez horrenbeste pertsonen *adina* edo *lanbidea*), *ideologia politikoa* (eta ez horrenbeste *euskal* edo *espainiar nazionalismo-mailarekin* lotutako gaiak edo *identitate-sentimenduak* edo, dena den, horiekin lotutakoak), *norberaren egoera ekonomikoaren* balioespen subjektiboa eta *familiako hileko diru-sarrera garbiak* (atzerriko immigrazioaren lanerako gaitasunaren aurrean zaugarritasun-sentimenduak islatzen dituztela dirudi) eta *erlijioa* (horrek adieraz dezakeen zama dogmatikoa eta gizarte-aldaketen aurreko malgutasun txikiagoa aintzat hartuta).

3. Euskal biztanleriaren barneko talde handiak

Analisi tipografikoa oso grafikoa da, eta lagunduko digu euskal herritarren artean askotariko motak eta bakoitzaren ezaguri soziodemografikoak ikusten, atzerriko immigrazioaren aurrean duten tolerantzia-maila handi edo txikiagoaren berri emango baitigu. Horretaz gain, oso erabilgarri gertatuko zaigu, talde horiek 0 puntutik 100era bitarteko kontinuumean kokatzeko eta beren artean dauden desberdintasunei errepartzeko, bai tolerantzia-mailari dagokionez eta bai talde horiek deskribatzen dituzten aldagaiak aintzat hartuta, hots: sozialak, demografikoak, ekonomikoak, politikoak, erlijiosoa, estatusaren arlokoak eta abar.

Dena den, nahiko informazio lausoa ematen digu talde horiek gure indizea osatzen duten arlo edo dimentsioetan dituzten desberdintasunez. Hau da, badakigu oro har indizean talde batzuek besteek baino puntuazio handiagoa lortzen dutela, baina ez dakigu gure indizearen osagai diren hamar arloetan desberdintzen diren, edota hamar horietako batean edo bestean soilik.

Aldagai anitzeko beste analisi bat aplikatu dugu informazio gehiago lortzeko asmoz eta euskal biztanleak gehien bereizten dituzten eta immigrazioaren aurreko jarrera, balio eta sinesmenekin lotuta dauden aldagai horietan sakontzeko asmoz; horrekin batera, euskal biztanleek immigrazioaren aurrean dituzten jarrerak agerraraziko dituzten sailkapenak egin ahal izango dituzte eta hurrengo urteei begira erraz erkatu eta kontrastatzeko moduko informazioa eskuratu ahal izango dute.

Analisi horretan, Espainian eta European egin diren beste azterlan batzuetako jarraibideak geure egitea erabaki dugu, eta euskal biztanleria hiru talde handitan bereiztea pentsatu dugu; taldekatze horien bidez, ahalegindu gara atzerriko immigrazioaren aurrean tolerantteak, anibalenteak eta uzkurak bereizi ahal izateko nahikoa desberdintasun aurkitzen.

Definitu ditugun hamar arloetan, immigrazioaren aurreko Tolerantzia Indizea kalkulatzeko oinarri diren hamar arlo horietan, herritar bakoitzak lortutako puntuazioak dira euskal biztanleria hiru talde horietan sailkatu ahal izateko aukeratu-

tako irizpideak. Hau da, arlo bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera (0tik 10era) sailkatuko dugu euskal biztanleria: biztanle etorkinen BOLUMENAREN pertzepzioa; atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT ikustea; euskal EKONOMIAN duen eraginari buruzko iritzia; EUSKAL GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia; BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa; ESTEREOTIPOEN indarraldia; ESKUBIDE eta zerbitzuak eskura izateari buruzko jarrera; HARREMAN-ESPAZIOEI buruzko iritzia; IMMIGRAZIO-POLITIKAREN ikuspegia; eta atzerriko immigrazioak gure gizartean dituen ERABATEKO ERAGINEI buruzko pertzepzioa.

Tarteko aldagaiak direnez (zenbakizkoak) erabaki dugu *k means* deritzon aldagai anitzeko sailkapen-analisia aplikatzea, eta atzerriko immigrazioaren aurrean tolerantteak, anibalenteak eta uzkurak bereiziz sailkatu dugu laginean bildutako multzo osoa.

2. taulak. Azken konglomeratuen zentroak

	Konglomeratua		
	Toleranteak	Uzkurak	Anibalenteak
Estereotipoak	7,00	3,13	4,94
Bizikidetza-ereduak	5,21	3,02	3,98
Immigrazio-politika	6,93	3,73	5,41
Harreman-espazioak	7,14	2,94	4,89
Eskubideak eskura izatea	7,71	4,22	5,80
Ekonomian dituen eraginak	7,22	2,78	5,33
Gizartean dituen eraginak	6,34	3,57	5,38
Euskal gizartean dituen eraginak	8,28	3,90	7,28
Arazoaren pertzepzioa	9,39	7,12	8,34
Bolumenaren pertzepzioa	6,22	3,27	4,62

Iturria: geuk egina

Ordenagailuak emandako emaitzetan oinarrituta taldebarneko homogeneotasuna eta taldeen arteko heterogeneotasuna aztertuz gero, hiru talde desberdin daudela ikusiko dugu. Azpimarratzeko modukoak dira herritar anibalenteen eta

uzkurren arteko desberdintasunak eta, aldiz, ez dira horren handiak herritar tolerantteen taldearen eta herritar anbibalenteen taldearen arteko desberdintasunak, batik bat talde horietako bakoitzaren barnean dauden desberdintasunekin alderatzen baditugu.

Dena den, hiru multzoen arteko desberdintasunak nabarmenak dira, eta horixe adierazten dute azken konglomeratuen zentroetan lortutako puntuazioak. Berorietan ikus dezakegu tolerantteen taldeak aztertutako arlo bakoitzean lortutako puntuazioak altuagoak direla anbibalenteen taldeak lortutakoak baino; aldi berean, anbibalenteen taldeak puntuazio handiagoa lortzen du uzkurren taldeak baino. Aldagai guztiek F balio esanguratsuak dituztela dio bariantza-analisiak, eta horrek adierazten du zehaztutako taldeen artean alde esanguratsuak daudela, aztertutako aldagai guztietan.


Hau da, tolerantteen taldearen barnean sailkatutako euskal herritarrek balio handiagoak dituzte arlo guztietan: estereotipoen presentzia txikia dute; bizikidetzaren ereduetan nahiko tolerantetarako dira; administrazioak hartu beharreko immigrazio-politikari dagokionez irekiagoak dira; harreman-espazio mistoen alde nabarmenak dira; jarrera irekiagoa eta unibertsalagoa dute etorkinek eskubideak eta zerbitzuak eskura izateari dagokionez; immigrazioak ekonomian eta, oro har, gizartean eta euskal gizartean (kulturan) dituen eraginaren ikuspegi positiboagoa dute, ez dute immigrazioa arazotzat ikusten, eta gaur egun atzerriko immigrazioak hartzen duen bolumenaren ikuspegi doituagoa dute.

Bestaldeko muturrean, uzkurren taldeak oso puntuazio baxuak ditu arlo guztietan, immigrazioa arazotzat ikusteari dagokion arloan izan ezik (ez du arazotzat ikusten). Atzerriko immigrazioaren aurrean argi eta garbi intolerantetarako diren jarrerak adierazten dituzte balio horiek.

Azkenik, anbibalenteen taldeak tarteko balioak ditu arlo guztietan, eta puntuazio horiek, batzuetan, uzkurren taldeak lortutako puntuaziora hurbiltzen dira (estereotipoen presentzian, proposatutako bizikidetzaren ereduetan, immigrazioaren bolumenaren pertzepzioan...); beste batzuetan, berriz, tolerantteen taldeak lortutako puntuaziora (ekonomian, euskal gizartean eta oro har dituen eragin positiboetan, eta immigrazioa arazotzat ez ikusteari dagokion arloan).

4. grafikoa

Taldeen puntuazioa hamar arloetan (azken zentroak)




Iturria: geuk egina

Hiru talde horiek Tolerantzia Indizean lortzen dituzten puntuazioak ere desberdinak dira, eta esanguratsua da hori. Toleranteen taldeak 71,45 puntu ditu, anbibalenteen taldeak 55,97 puntu, eta uzkurren taldeak 37,68 puntu.

5. grafikoa

Taldeek Tolerantzia Indizean lortutako puntuak



Iturria: geuk egina


Analisi diskriminatzailea egiteak aukera ematen digu gure inpresioak berresteko eta euskal biztanleria hiru talde horietan sailkatzeko.

Funtzio diskriminatzaileen azterketak (biak diskriminatzaileak, lehenengoak askoz ere garrantzi handiagoa badu ere) adierazten digu ia aldagai guztiak diskriminatzaileak direla. Lehenengo funtzio diskriminatzaileak honako arlo hauek biltzen ditu: ESTEREOTIPOEN presentzia, IMMIGRAZIO-POLITIKARI buruzko iritzia, EKONOMIAN dituen eraginak, HARREMAN-ESPAZIOAK, ESKUBIDEAK eskura izatea, BOLUMENAREN pertzepzioa eta erabateko ERAGINAK. Bigarren funtzioa EUSKAL GIZARTEAN dituen eraginaren arloak soilik osatzen du. Lehenengoak, tolerantetarako bereizten ditu uzkurrengandik eta anbibalenteengandik, eta bigarrenak azken hauek bereizten ditu uzkurrengandik eta tolerantetarakoengandik. Dena den, badirudi bi funtzio horiek argi eta garbi bereizten dituztela hiru taldeak, analisi diskriminatzaileak zuzen sailkatzen baititu pertsona guztien % 97,2.

Hiru taldeen pisua, neurria, ez da berdina. Toleranteen taldeak lagineko pertsona guztien % 39,5 biltzen ditu, anbibalenteen taldeak % 41,2, eta uzkurren taldeak euskal biztanleriaren % 19,3; ez da nolana hiko ehunekoa, aztertutako arloetan dituzten jarrerak eta Tolerantzia Indizean lortutako balio txikia aintzat hartuta.

6. grafikoa

Taldeen tamaina



Iturria: geuk egina

4. Ondorioak

2008ko Barometroan lortutako informazioaren analisi zorrotza egin ondoren, honako ondorio hauek atera daitezke gure ustez:

1 2007ko Barometroaren datuek erakutsi zutenaren ildo beretik, atzerriko immigrazioa ez dela arazo pentsatzen jarraitzen du euskal biztanleriak. Zalantzarik gabe, atzerritik gure gizartera etorkinak etortzeak aldaketa handia ekarri du, askotariko jatorria, balioak, ohiturak, hizkuntzak edota erlijioak dituzten pertsonen arteko bizikidetzak dakarrelako. Mundu-ikuskerak desberdineko pertsonekin bizitzera behartzen gaitu. Horrek doikuntzak egitea, gauza batzuei uko egitea, negoziatioak egitea, berregokitzea eta abar eskatzen du; pertsonen eta pertsona taldeen artean tirabirak ere ekarriko ditu, bide onetik kudeatu beharko ditugunak. Dena den, atzerriko immigrazioak komunikabideetan duen eraginak eta tratamenduak gertakari hori arazo bihurtzera jo ohi badute ere, euskal biztanleriak ez du arazotzat ikusten. Eta gu iritzi honetakoak gara: atzerriko immigrazioa ez da irtenbidea eman behar zaion arazo bat. Gizarteko fenomeno bat da, kudeaketan zenbait arazo sortzen dituena, eta horiei jarri behar diegu arreta; estrategiak proposatu behar ditugu irtenbidea emateko edo gutxienez arazo horiek arintzeko.

2 Kulturartekotasunean oinarritutako benetako integrazio-politikarik ez dagoenez, euskal biztanleek uste dute funtsean etorkin diren biztanleei dagokiela atzerriko etorkinen integrazioa; hori azpimarratzen dute: etorkin horiek hartu behar dute horren aldeko jarrera aktiboa, eta biztanle horiek hartu behar dituzte gure ohiturak, hizkuntza, tradizioak eta balioak; horixe diote, bertako biztanleei eta etorkinei mugitzea eta ahalegintzea eskatzen dieten elkarren arteko integrazio-prozesu batetik haratago. Finean, badirudi euskal biztanleria erosoago dagoela izaera asimilazionista duen integrazio-prozesu batekin, oraindik erreferente argirik ez duen kulturarteko eredu batekin baino, agian bene-benetan ez dakielako zertan den eta nola artikulatzen den praktikan kulturarteko jokabide baten bidez.

3 2008ko Barometroaren datuek berriro ere azpimarratu dutenez, euskal gizartean ez daude immigrazioaren aurrean aurkako jokabideak, iritziak, jarrerak, balioak eta abar dituzten muturreko taldeak. Gertakari horren aurrean, euskal gizarteak kontraesana adierazten duten bitariko jarrerak, jarrera anibalenteak, agertzen jarraitzen du, *batean kale eta bestean bale* egiten du, alderdi positiboak eta negatiboak ikusten ditu, immigrazioaren aurrean argi-tilunak nabarmentzen ditu. Landu dugun immigrazioaren aurreko Tolerantzia Indizean, euskal gizartea erdiko puntu batean kokatzen dugu (batez besteko puntuazioa ez da 60 puntura iristen), erabat ireki eta toleranteak diren jarreraren eta tolerantziarik erakusten ez duten jarrera itxien artean; eta alderdi horretatik, ez da aldaketa handiegirik nabari 2007ko Barometroak eskainitako datuekin alderatuta.

4 Goian adierazi dugunak ez du esan nahi biztanleria bereizteko baliagarriak diren zenbait aldagai soziodemografiko aurkitu ez dugunik; tolerantzia handiagoko eta txikiagoko jarrerak eta jokabideak bereizteko aukera ematen dute, nahiz eta desberdintasunak intentsitateari lotuta dauden, eta ez muturreko jarrerei, lehen ere esan dugunez. Horien artean, prestakuntza-maila bereizi nahi dugu (eta ez horrenbeste adina edo pertsonen lanbidea), dirudie-nez, 2007ko Barometroak erakutsi zuenaren ildotik, horixe baita jokabide eta jarrerak bereizi eta auresateko gaitasun handiena duen aldagaia: euskal biztanleen prestakuntza-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta toleranteagoa, irekiagoa, malguagoa eta positiboagoa da atzerriko immigrazioaren aurrean. Eta alderantziz.

5 2007ko Barometroan jada nabarmendu ziren eta 2008ko Barometroan berriro ere bereizketa egiteko oso baliagarri gertatu diren beste aldagai batzuk honako hauek dira: ideologia politikoa (eta ez, horrenbeste, euskal edo espainiar nazionalismo-mailarekin lotutako kontuak edo identitate-sentimenduak, edota, finean, horiekin lotuta daudenak), norberaren egoera ekonomikoarekiko gogobetetasunaren balioespen subjektiboa eta familian hilean sartzen diren diru-sarrera garbiak (atzerriko immigrazioak lanerako duen gaitasunaren aurrean zaurgarritasun-sentimenduak erakusten baititu itxura batean) eta erlijiozkotasuna (horrek adieraz dezakeen zama dogmatikoa eta gizarte-aldaketen aurreko malgutasun txikiagoa aintzat hartuta).

5. Metodologia

Indize hau atera ahal izateko, 62 itemak 10 arlotan bildu ditugu, eta horietako bakoitzean emandako erantzunak haztatu ditugu, pertsona bakoitzak horietako arlo bakoitzean lor dezakeen gutxieneko puntuaziotzat 0 hartuta (atzerriko immigrazioaren aurrean erabat jarrera, balio, sinesmen eta iritzi itxiak eta intoleranteak adierazten ditu) eta gehienekotzat 10 (erabat jarrera, jokabide eta prestasun ireki eta toleranteak adierazten ditu). Horrela, oro har, pertsona bakoitzak 10 arloetan lortutako puntuazioak batzen baditugu, honen puntuazioa 0tik 100ra bitartekoa izango da (0 puntuk intransigentzia, jarrera itxia eta intolerantzia adieraziko ditu, eta 100 puntuk irekitasuna, malgutasuna eta tolerantzia). Arlo hauek bereizi dira:

- Biztanle etorkinen BOLUMENA, eta honen barnean sartzten dira biztanle etorkinen ehunekoaren pertzepzioa (P4), sumatutako kopuruaren balioespen kuantitatiboa (P3) eta zifra errearen balioespen kuantitatiboa (P5).
- Atzerriko immigrazioa ARAZOTZAT ikustea, eta honen barnean sartzten dira Euskadiko arazo nagusiei buruzko iritzia (bat-batekoa eta iradokitakoa, P1 eta P2) eta norberaren arazo nagusiei buruzkoa (P24).
- EKONOMIAN duten eraginari buruzko iritzia, eta honen barnean sartzten da gai hauen inguruko adostasun-maila: immigrazioak soldatak jaisten ditu (P6a), pobreei kalte handiagoa egiten die (P6b), hutsik dauden lanpostuak betetzen ditu (P6c) eta ekonomia hobeto joan dadin laguntzen du (P6e); eta, halaber, lana aurkitzeko (P25a) eta soldata txikiagoak kobratzeko (P25b) etorkin gehiago iristeak izan ditzakeen eraginaren inguruko pertzepzioa.
- EUSKAL GIZARTEAN duen eraginari buruzko iritzia, eta horren barnean sartzten da gai hauen inguruko adostasun-maila: immigrazioak euskara motelduko du (P23a), euskal identitatea galtzea sustatuko du (P23b), euskal nazionalismoa ahulduko du (P23c), eta gune euskaldunetan euskararen erabilera murriztuko du (P23d); eta, halaber, kultura-identitatearen galeran etorkin gehiago iristeak izan ditzakeen eraginei buruzko pertzepzioa (P25g).
- BIZIKIDETZA-EREDUEI buruzko pertzepzioa, eta honen barnean, gai hauen inguruko adostasun-maila sartzten da: bertakoak etorkinei egokitu behar zaizkie (P18a), hobe da ohitura eta tradizio berak izatea (P18b), bertakoek zenbait ohiturari uko egin behar diote (P18c), hobe da hizkuntza komuna izatea (P18d), etorkinek beren kulturaren alderdi batzuk utzi behar dituzte (P18h), ohitura berriak hartu behar dituzte (P18i), ona da kultura eta tradizio desberdinak izatea (P18j) eta etorkinek indarreko legezkotasunarekin gatazkak eragiten dituzten beren kulturako eta tradizioetako zenbait alderdi utzi behar dituzte (P18k).
- ESTEREOTIPOEN indarraldia, eta horren barnean sartzten da gai hauen inguruko adostasun-maila: immigrazioak herritarren segurtasunari eragiten dio (P6g), etorkinek onura gehiegi lortzen dituzte gure ongizate-sistematik (P18e), etorkinen erlijioak arriskuan jartzen du gure bizi-estiloa (P18f) eta etorkinek zerga gutxiago ordaintzen dituzte (P18g); eta, halaber, etorkin gehiago iristeak herritarren segurtasunean izan dezakeen eraginaren inguruko pertzepzioa (P25f).
- Zerbitzu eta ESKUBIDEAK eskura izatea, eta horren barnean sartzten dira biztanle etorkinek beren seme-alabak hezkuntza-sisteman hezteko duten eskubideari buruz duten iritzia (P13a), osasun-laguntzan sartzeari buruz duten iritzia (P13b), gizarte-laguntzei buruzkoa (P13c), etxebizitza-eskubideari buruzkoa (P13d), familia berriro batzeko eskubideari buruzkoa (P13e), boto-eskubideari buruzkoa (p13f), laguntza juridikoari buruzkoa (P13g), lanbide-prestakuntza izateari buruzkoa (p14a), gaztelaniako eskolak izateari buruzkoa (p14b), euskarako eskolak izateari buruzkoa (p14c) eta beren ama-hizkuntzetan eskolak izateari buruzkoa (P14d).
- HARREMAN-ESPAZIOEI buruzkoa, eta horren barnean sartzten dira etorkinik gabeko bizitokia, etorkin gutxiak edo etorkin askokoa izateko lehentasuna (p20), aisialdian etorkinekin duten harreman-maila (P26) eta hainbat egoeraren aurrean erakusten duten jarrera: etorkinek beren saltokiak irekitzea (P17a), beren hizkuntzan hitz egitea (P17b), beren janzkerak erabiltzea (P17c), jantziak erosteko beren saltokiak izatea (P17d), beren erlijioetarako tenpluak eraikitzea (P17e), beren ikastetxeak izatea (p17f), plaza eta leku publikoetan biltzea (P17g) eta jatetxe exotikoak irekitzea (P17h).
- Immigrazioari buruzko POLITIKAREN ikuspegia, eta horren barnean etorkinei gure gizartean sartzeko ezartzen zaizkien baldintzei buruzko iritzia (P8 eta P10) eta langabeziaren aurrean (P6d), delitu baten aurrean (P6f) eta administrazioarekiko egoera irregular baten aurrean (P9) bertan jarraitzeko baldintzei buruzko iritzia.
- Gure gizartean immigrazioak dituen ERABATEKO ERAGINEN pertzepzioa, bertako eta atzerriko biztanleen arteko harremanei buruzko balioespena (P7) eta immigrazioaren eragin orokorraren pertzepzioa (P28).



EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: www.ikuspegi.org

Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:
- **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi maila-gua eskeintzen ditu.
- **Informazio estatistikoa.**

Gurekin harremanetan jartzeko:

Tlf.: 94 601 82 75
Fax: 94 402 35 40
e-mail: info@ikuspegi.org

Postaz eta pertsonalki helbide honetan aurki gaitzaitez:
Alameda Mazarredo 39, 4.C, 48009 Bilbo - Bizkaia